AURREPROIEKTUA: ______/2019 FORU ARAUA, ______aren ____(e)koa, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua aldatzen duena.

ANTEPROYECTO DE NORMA FORAL _______/2018, de ____de _______, por la que se modifica la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles.

Indarrean 25 urte egon ondoren eta ondasun higiezinen zergaz gainera Bizkaiko Lurralde Historikoko higiezinen katastroaren arloa arautu eta gero, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Araua derogatu eta ordezkatua izan zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren eta Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren bidez.

Tras más de 25 años de vigencia de la Norma Foral 9/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre bienes inmuebles, que regulaba no solo el Impuesto sobre Bienes inmuebles, sino también la materia relativa al Catastro inmobiliario del Territorio Histórico de Bizkaia, la misma fue derogada y sustituida por la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles y por la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko Foru Arauak Foru Katastroaren definizio objektiboa jasotzen du, benetan zer den adierazten duena: erregistro administratibo bat, tributuen orokortasunaren eta zerga-justiziaren printzipioen zein baliabide publikoak ekitatez esleitzeko printzipioaren zerbitzura dagoena.

La Norma Foral de Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia contiene una definición objetiva del Catastro Foral como lo que realmente es, un registro administrativo al servicio de los principios de generalidad y justicia tributaria y de asignación equitativa de los recursos públicos.

Foru-arau horrek nabarmentzekoak diren berritasun batzuk gehitu zituen; azpimarratu behar da ondasunen hirugarren kategoria bat definitzen duela hiri- eta landa-ondasun

Esta Norma Foral introdujo algunas novedades destacables entre las que cabe citar la conceptuación por primera vez, de una nueva categoría de bienes junto a la de

higiezinekin batera: ezaugarri bereziko ondasun higiezinak. Ondasunok erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, eta, horrenbestez, ezin dakieke balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin.

los bienes de naturaleza urbana y la de los de naturaleza rústica, constituida por los bienes inmuebles de características especiales, formados por un conjunto complejo de uso especializado y que, por ello, no son susceptibles de valoración colectiva ni caracterización normalizada.

Foru-arauaren izapidetzearekin batera, hiri- eta landa-ondasun higiezinetarako katastro-balioen txosten berriak onetsi ziren, eta hurrengo fase baterako utzi zen ezaugarri bereziko ondasun higiezinetarako txostenak egiteko prozedura.

En paralelo a la tramitación de la Norma Foral, se aprobaron nuevas ponencias de valores catastrales para los bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica, dejando para una fase posterior el procedimiento de elaboración de las ponencias para los bienes inmuebles de características especiales.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Higiezinen Foru Katastroari buruzko Foru Arauak ezarri zuen foru-araua indarrean jarri eta handik bi urtera onartuko zirela ezaugarri bereziko ondasun higiezinetarako txosten berriak.

En este sentido la disposición transitoria única de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia estableció que las nuevas ponencias de los bienes inmuebles de características especiales se aprobarían en el plazo de dos años desde la entrada en vigor de dicha Norma Foral.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinen katastro-berrikuspena egiteko arau horren aurreikuspena bete da, eta dagozkion arauzko egokitzapenak egin dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroaren Erregelamendua aldatuta eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinen arau teknikoak arautzeko foru-dekretu berri bat

Cumpliendo con esta previsión normativa para abordar la revisión catastral de los BICEs se han realizado las adaptaciones reglamentarias pertinentes, modificando el Reglamento de Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y aprobando un nuevo Decreto Foral que regula las Normas Técnicas de los bienes

onetsita; horrez gainera, foru-arau hau izapidetzen ari den aldi berean, ezaugarri bereziko ondasun higiezinen balio-txostenak onesteko prozedura egiten ari da.

inmuebles de características especiales y de forma paralela a la tramitación de esta Norma Foral se está llevando a cabo el procedimiento de aprobación de las ponencias de valores de los BICEs.

Era berean, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 16ko 4/2016 Foru Arauan xedatutakoarekin bat, beharrezkoa da foru-arau hori egokitzea, ondasun-kategoria berriari aplikatu behar zaizkion karga-tasa bereziak ezartzeko.

Adicionalmente, y de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición transitoria única de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles, es preciso adaptar dicha Norma Foral, al objeto de establecer los tipos de gravamen específicos aplicables a la nueva categoría de bienes.

Bestalde, izaera teknikoko zehaztasun batzuk sartzen dira, eta okupatu gabeko bizitegi-erabilerako ondasun higiezinen gaineko errekargutik salbuetsita uzten da izaera sozialeko etxebizitza publikoko planei lotuta dauden ondasun higiezinen kasuan .

Finalmente, se introducen algunas precisiones de carácter técnico y se exime del recargo sobre bienes inmuebles de uso residencial desocupados a aquellos inmuebles destinados a planes de vivienda pública de carácter social.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, bai eta genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen

Asimismo se han observado los trámites

orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

1. artikulua. *Subjektu pasiboa.*

Aldatu egiten da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 4. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da:

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa aplikatu behar bada ere, subjektu pasiboak ahalmena izango du berak jasandako zerga-zama beste batzuei jasanarazteko, zuzenbide erkideko arauei jarraituz.

Udalek dagokien kuota likidoaren zatia jasanaraziko diete zergaren subjektu pasibo izan ez arren jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak kontraprestazio bidez erabiltzen dituztenei, eta azken horiek behartuta daude adierazitako kuota hori jasatera. Bada, bakoitzari jasanarazi beharreko kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer katastro-balio dagokion erabilitako azalerari eta zer katastro-balio dagokion erabilera-eskubidearen errentari

Articulo 1. *Sujeto pasivo.*

Se modifica el apartado 2 del articulo 4 de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles, que queda redactado en los siguientes términos:

“2. Lo dispuesto en el apartado anterior será de aplicación sin perjuicio de la facultad de la o del sujeto pasivo de repercutir la carga tributaria soportada conforme a las normas de derecho común.

Los ayuntamientos repercutirán la parte de la cuota líquida del impuesto que corresponda en quienes, no reuniendo la condición de sujetos pasivos del mismo, hagan uso mediante contraprestación de sus bienes demaniales o patrimoniales, los cuales están obligados a soportar la repercusión. A tal efecto, la cuota repercutible se determinará en razón a la parte del valor catastral que corresponda a la superficie utilizada y a la construcción directamente

edo lagapen-hartzaile bakoitzari zuzenean lotutako eraikinari.

vinculada a cada arrendatario o arrendataria, cesionario o cesionaria del derecho de uso."

2. artikulua. *Karga-tasa.*

Articulo 2. *Tipo de gravamen.*

4. zenbakia sartzen da 3. zenbakiaren ondoren, eta, horrez gainera, gaur egungo 4. eta 5. zenbakiak 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 8. artikuluko 5. eta 6. artikuluak izango dira. Honela geratzen da idatzita 4. zenbakia:

Se introduce un nuevo apartado 4 a continuación del apartado 3 y los actuales apartados 4 y 5 pasan a ser los apartados 5 y 6 del artículo 8 de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles, que queda redactado en los siguientes términos:

«4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak direnean, % 0,20 izango da gutxieneko karga-tasa, eta % 0,80 gehienekoa.

"4. Cuando se trate de bienes inmuebles de caracteristicas especiales, el tipo de gravamen mínimo será el 0,20 por 100 y el máximo será el 0,80 por 100.

Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan, udalek aukera izango dute tasa bereiziak jartzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroaren Erregelamenduaren 5 bis artikuluko 2. zenbakian adierazitako ondasunen talde eta azpitalde bakoitzerako.»

Dentro de los límites establecidos en el párrafo anterior, los ayuntamientos podrán establecer tipos diferenciados por cada grupo y subgrupo de bienes a los que se refiere el apartado 2 del artículo 5 bis. del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia."

3. artikulua. *Hobariak eta aukerako errekarguak.*

Articulo 3. *Bonificaciones y recargos potestativos.*

Aldatu egiten da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 10. artikuluko 8. zenbakia, eta honela geratzen da:

Se modifica el apartado 8 del artículo 10 de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles, que queda redactado en los siguientes términos:

“8. Ondasun higiezinek bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 50erainoko errekargua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboei exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

“8. Tratándose de bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia de la o del sujeto pasivo o de terceras personas por arrendamiento o cesión de su uso, los Ayuntamientos podrán exigir un recargo de hasta el 50 por 100 de la cuota líquida del Impuesto. Dicho recargo se exigirá a las y los sujetos pasivos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y se devengará y liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota de este impuesto.

Bizitegi-erabilera duen ondasun higiezintzat hartuko da, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Ondasun Higiezinen Zergaren sortzapen datan.

Se presumirá que un inmueble de uso residencial constituye residencia de su o sus ocupantes cuando a fecha de devengo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles así conste en el padrón del municipio donde radique.

Errekargu honen aplikazioaren ondorioetarako, etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarra osatzen badute.

A efectos de la aplicación del presente recargo, se tendrán en cuenta los anexos a la vivienda siempre que formen una finca registral única junto con la misma.

Aurrekoa gora behera, udalek beren ordenantza fiskaletan ezarri dezakete zer kasutan ez den aplikatuko apartatu honetan aipatzen den errekargua.

No obstante lo anterior, los Ayuntamientos podrán establecer en sus Ordenanzas Fiscales supuestos a los que no resulte de aplicación el recargo previsto en el presente apartado.

Errekargu hori ez zaie inola ere aplikatuko bizitegi erabilerako ondasun higiezinei,

En ningun caso será de aplicación dicho recargo a los bienes inmuebles de uso

izaera sozialeko etxebizitza publikoko planetara destinatuta daudenean.”

4. artikulua. *Zergaren kudeaketa.*

Berridatzi egiten da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 12. artikuluko 4. zenbakia, eta honela geratzen da:

«4. Subjektu pasibo bati dagozkion zerga honen kuotak kobrantza-dokumentu bakarrean taldekatu ahal izango dira, baldin eta udalerri berean dauden ondasunei badagozkie.»

Xedapen iragankor bakarra.

Balio-txostenak onetsi gabe dituzten ezaugarri bereziko ondasun higiezinen kasuan, aplikatzekoa izango da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko 2016ko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren xedapen iragankor bakarrean xedatutakoa.

Amaierako lehenengo xedapena

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da

residencial destinados a planes de vivienda pública de carácter social.”

Articulo 4. *Gestión tributaria del impuesto.*

Se da nueva redacción al apartado 4 del artículo 12 de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles, que queda redactado en los siguientes términos:

“4. Se podrán agrupar en un único documento de cobro todas las cuotas de este impuesto relativas a un mismo sujeto pasivo cuando se trate de bienes sitos en un mismo municipio.”

Disposición transitoria única.

A los bienes inmuebles de características especiales para los que no se hayan aprobado las correspondientes ponencias de valores, se les aplicará lo dispuesto en la Disposición transitoria única de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre bienes inmuebles.

Disposición final primera. *Entrada en vigor*

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín

indarrean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Amaierako bigarren xedapena. *Arauak emateko gaikuntza*

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru rau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Oficial de Bizkaia y tendrá efectos desde 1 de enero de 2020.

Disposición final segunda. *Habilitación normativa*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en esta Norma Foral.